

FUNTSEZKO JARDUERAK

Enpresa baten funtsezko jarduerak erakunde edo enpresa batek bere produktuak edo zerbitzuak eskaintzeko eta merkatuan balioa sortzeko egiten dituen jarduera nagusiak dira. Jarduera horiek enpresaren estrategiaren eta negozio-ereduaren arabekoak dira, eta balioa sortzeko prozesuan ezinbestekoak dira. Horregatik, gure enpresaren funtsezko jarduerak aztertuko ditugu.

Jarduera hauek hiru talde nagusietan sailkatu ahal ditugu jarduera hauek modu globalago batean antolatzeko.



Lehenengoa ekoizpena edo zerbitzuak ematea. Honen barruan aurkitu ahal ditugu bezeroengana bideratuta dauden ekintzak modu zuzenean edo zeharka (honen kasuan adibidez formakuntza berriak aurki daitezke)

Zerbitzuak ematea eta leialtasuna bermatzea. Gure bezeroen beharrak aztertuz talde txiki edo handiko jarduerak edo banakako jarduerak eskainiko dizkigu haien beharrei erantzuteko. Jarduera horiekin gure bezeroen zorientasuna bilatzen dugu, gure enpresaren bezero izaten jarrai dezaten denbora luzerako bere beharrak asetzen ditugulako. Hori izango da gure enpresaren ongizaterako diru iturri nagusia, eta beraz, funtsezko jardueratzat hartu dezakegu. Zerbitzu hori gero eta modu osoago batean egiteko hilabetero egingo dugu formakuntza bat kanpoko espezialista bat ekarri bezeroei ematen diegun zerbitzua eta gure barne formakuntza hobetzeko. Adibidez, formakuntza horietan lantzeko gaiak honakoak izan daitezke: estereotipoak nola ekidin, lgtbi gaiaren inguruko formakuntzak...

Arriskuen kudeaketa. Familia bakoitzaren egoera pertsonalera moldatuko gara beste familiak ez kaltetzeko eta arazorik ez sortzeko haien artean. Egoera psikologiko txarreko pertsonen laguntza ematen diegunez beste bezeroen segurtasuna bermatu behar dugu. Bezeroen ongizate pertsonala garrantzitsua denez gure enpresarentzat funtsezko jarduera bat da.

Arazoen konponketa izango da sailkapenerako hurrengo jarduera taldea. Horretan multzokatu egiten dira enpresaren eguneroko jardueran agertzen diren arazo edo sailtasunak konpontzearekin erlazionatuta dauden jarduerak.

Erabaki estrategikoak eta helburuak ezartzea eta betetzea. Hiru hilean behin, langile-bilera bat egingo dugu, eta ezarritako helburuak eguneratuko ditugu, gure bezeroei ahalik eta zerbitzurik onena emateko, haiek mantentzeko eta berriak erakartzeko estrategiak definitzeko. Zerbitzuaren hobekuntza beharrezkoa denez enpresa aurrera eramateko funtsezko jarduera da gure enpresarentzat.

Kalitatearen kontrola. Saiatuko gara gure bezeroak egunero ondo egon daitezen eta haien proposamen eta arazoak zeintzuk diren entzungo ditugu eta edozein hobekuntza proposatzen badute kontuan hartzeko, izan ere, haiek gustura sentitzea eta horrela, itzultzeko gogoia izatea, izango da gure helburua. Horren ondorioz, bezeroei eskaintzen diegun kalitatea kontrolatzea funtsezko jarduerak da.

Azkenik, plataforma edo sareko jarduerak daude. Jarduera horiek Interneten edo aplikazioan dagoen informazioa eguneratzea edo interneten edo aplikazioan dagoen zerbitzuaren inguruko hobekuntzaren inguruan daude lotutako jarduerak.

Berrikuntza teknologikoak. Gure web orri eta aplikazioaren informazioa eguneratuak izatea eta aplikazioaren hosting eta programak eguneratuak izatea zerbitzurik hoberenak eskaintzeko. Funtzionamendurako sistema operatibo eraginkorrean izanda. Hau funtsezko jarduerak da bezero berriak erakartzeko eta bezeroak mantentzeko erabiliko ditugulako sare sozialak.

Publizitatea eta salmenta-prozesuak. Gure web orriak eguneratuta izango ditugu modu erakargarri batean ahalik eta bezero gehien erakartzeko eta urtero hirian zehar eskaintzen ditugun triptikoak eta kartelak gure enpresaren inguruko informazioarekin eta horren ondorioz bezero berriak lortzen ditugunez funtsezko jarduerak da.

Jarduera guzti hauetatik gure enpresaren ongizaterako lehentasuna duten jarduerak zerbitzua ematea, kalitatearen kontrola, prestakuntza eta garapena eta arriskuen kudeaketa dira.